

# GARDENTASUNAREN EGOERA

GASTEIZKO UDALAREN PUBLIZITATE AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO  
PUBLIKORAKO SARBIDEAREN INGURUKO BETEBEHARREN BETETZE-  
MAILARI BURUZKO TXOSTENA  
- 2016ko EKITALDIA -

GARDENTASUNAREN ETA EDUKIEN ATALA  
2017ko APIRILA (EGUNERATUTA 2017KO MAIATZA)





## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>3. or.</b>
1.1 Lege- eta arau-esparrua.....	4. or.
1.2 Txosten honi buruz.....	4. or.
<b>2. Publizitate aktiboa</b> .....	<b>5. or.</b>
Printzipio orokorrak .....	5. or.
Erakundeari, antolamenduari eta plangintzari buruzko informazioa .....	6. or.
Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa .....	9. or.
Ekonomiari, aurrekontuari eta estatistikari buruzko informazioa .....	10. or.
Langileei buruzko informazioa.....	13. or.
Tokiko politika publikoen eta zerbitzu-zorroaren gaineko informazioa .....	14. or.
Beste alderdi batzuk.....	16. or.
Erakunde autonomoak eta udal enpresak .....	17. or.
<b>3. Informazio publikoa eskuratzea</b> .....	<b>22. or.</b>
3.1 Lege-esparrua eta prozedura .....	22. or.
3.2 Estatistikak.....	23. or.
<b>4. Gardentasun Atarira egindako bisitak</b> .....	<b>25. or.</b>
<b>5. Ondorioak</b> .....	<b>29. or.</b>
<b>6. Eranskina: Sindikoaren Bulegoaren gardentasuna</b> .....	<b>31. or.</b>
<b>7. Eranskin grafikoa: betetze-maila</b> .....	<b>33. or.</b>



## Sarrera

Dokumentu honen xedea Gasteizko Udalean, bere erakunde autonomoetan eta udal enpresetan **gardentasunari buruzko betebeharrak 2016ko ekitaldian zein neurritan bete diren** azaltzea da.

Horrela, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko **2/2016 Legearen 66. artikulua** betetzen da, zeinak honako hau dioen hitzez hitz:

*66. artikulua.– Gardentasunari eta informazio publikorako sarbideari buruzko betetze-mailaren jarraipena.*

*1. Urte naturaleko lehen hiruhilekoan, txostena egingo da publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharrak aurreko urte naturalean zein neurritan bete diren jakiteko.*

*2. Txosten horrek ondorengo alderdi hauek aztertu eta azalduko ditu, gutxienez:*

*a) Udalak eta 47. artikuluan aipatutako bere menpeko gainerako subjektuek zein neurritan bete dituzten publizitate aktiboko euren betebeharrak.*

*b) Gardentasunaren atarian kontsulta gehien izan dituzten edukiak.*

*c) Informazio publikorako sarbidea izateko eskubidearen erabilera: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adintartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).*

*3. Egindako txostena publizitate aktiboari dagokion informazio guztiarekin batera argitaratuko da.*

Bestalde, Gasteizko Udalaren Herritarren Parte-hartzearen Araudi Organikoaren 87. artikulua ezartzen du **Udalaren Gardentasun Kontseilua eratuko dela**, “Gasteizko Udalak dituen betebeharrak eta konpromisoak betetzen diren” zaintzeaz arduratuko den organo aholku-emalea.

Zeregin hori betetzeko, Araudi horren 89. artikulua, bere zereginen artean, ezartzen du Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikuluan aipatzen diren **“publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruko betebeharren betetze-mailari buruzko txostena”** egitea.



## 1.1 Lege- eta arau-esparrua

Dokumentu honek aipatzen dituen **betebeharrak**, gardentasunari lotuta daudenak eta era berean Udalarari aplikatzekoak zaizkion beste legegintza-ingurune batzuetan agertzen direnak bazter utzi gabe, **bi oinarrizko arauk markatzen dituzte**:

- **19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa** ([295. zk. BOE, 2013ko abenduaren 10ekoa](#))
- **2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa** (70. zk. EHAA, 2016ko apirilaren 14koa).

Bi legegintza-testuetan, udalaren **antolamendu osoa barnean hartzen duten publizitate aktiboko eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilera eraginkorraren kudeaketari buruzko betebeharrak** batzuk biltzen dira.

Sailen, Erakunde autonomoen eta Udal enpresen arteko beharrezko koordinazio-lana egiteko, Gasteizko Udalak, efizientziari eta gastu publikoaren aurrezkiari lotutako irizpideetan oinarrituz, **zeregin horiek** Herritarrentzako Arretaren eta Gardentasunaren Zerbitzuaren barnean dagoen **Gardentasunaren eta Edukien Atalari esleitu dizkio**. Beraz, Atal hori da txosten hau egiten duena eta Gardentasunaren Kontseiluari aurkeztzen diona, dagokion irizpena eman dezan eta 2017. urteko eta ondorengo urteetako lan-planean sartu ahal izan ditzan txostenaren ondorioz ematen diren gomendioak.

## 1.2 Txosten honi buruz

Aipatu diren bi legeek nahitaez publizitate aktiboaren xede diren **gai** nagusiak aurkeztu dituzte, **atalez atal**. Jarraitu den eskema izan da hasiera batean **legeen betebeharrak** adieraztea (betiere nahitaez bete beharreko gutxieneko gisa hartu behar direnak), legeria bakoitzak eskatzen duenaren laburpen logikoa eginez eta, beti, gauzak gaineratuz<sup>1</sup>. Ez da bereizketarik egiten, hobeto ulertzeko beharrezkoa denean salbu, 19/2013 Legeak eskatzen duen betekizunaren eta 2/2016 Legeak eskatzen duenaren artean, 19/2013 Legea Lege Organikoa ez denez hierarkia-maila argirik ez dagoelako. Aitzitik, euskal Legea udal-antolamenduari dagozkion gaietan zehatzagoa denez gero, euskal Legeak erabiltzen dituen definizioei lehentasuna eman zaie, eta ez dago 19/2013 Legeak eskatzen duen publizitate aktiboko ia betebeharrak bakar bat ere euskal Legeak eskatzen ez duenik termino berdinetan edota termino osatuago edo zehatzagoetan.

---

<sup>1</sup> Zera esan nahi dugu: 19/2013 Legeak esaten badu "Aurrekontuak argitaratu behar direla aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari eta administrazio publikoen aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria emanez" eta 2/2016 Legeak aurrekontuen itemari gaineratzen badio "argitara emango direla osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean", betebeharraren birdefinizio bat egin da, bertsiorik osatuenean azalduz.



## Publizitate aktiboa

### PRINTZIPIO OROKORRAK

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua, Legeak behartzen dituen subjektuen **publizitate aktiboa arautu behar duten printzipio orokorrak** ezartzen ditu; eta horien artean Gasteizko Udala dago. Printzipio horien artean biltzen da gardentasun-betebeharren mendeko informazioa (“ezagutu beharrekoa den informazioa jardun publikoaren funtzionamendu eta kontrolari lotutako jardueraren gardentasuna bermatzeko”):

- **Aldizka eta eguneratua** argitaratuko dela.
- **Dagozkion egoitza elektronikoa edo web-orrietan argitaratuko** dela.
- **Argi, era antolatuan eta ulertzeko moduan** argitaratuko dela, eta ahal bada, **berriz erabiltzeko moduko formatuetan**.

Legeak adierazten duenez, **argitaratutako informazioa eskuragarria, kalitatezkoa eta elkar eragiteko eta berrerabiltzeko modukoa izateko bitartekoak** ezarriko dira, bai eta informazio hori identifikatu eta lokalizatzeko beharrezkoak direnak. Era berean, “Informazio guztia ulergarria, erraz eskuratzeko modukoa eta doakoa izango da, eta desgaituentzat eskuragarri egongo da bitarteko edo formatu egokien bidez, irisgarriak eta ulergarriak izan daitezten, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraiki.”

Lehen abiapuntu hau argi geratzen da webgune instituzionalak ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) adierazitako irisgarritasun-politikan, eta webgune hori osatzen duten orrialde guztien oinean kontsulta daiteke<sup>2</sup>. **Udalaren web-ataria** da, beraz, publizitate aktiboko betebeharrek aipatzen duten **informazioaren gordailuzain nagusia**. Udalaren webgunearen konfigurazioaren ondorioz informazio-itemak hainbat lekutatik eskura daitezke, baina gardentasun-gunea ([www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna)) horietako gehienak lotzeko gune zentral gisa eratu da.<sup>3</sup>

<sup>2</sup> Irisgarritasunaren atala. Udalaren webguneak W3Caren barneko WAI lan-taldeak landutako ACAG 2.0 arauen A bikoitza mailarako definitutako jarraibideak betetzen ditu; era berean, hainbat nazioarteko estandar betetzen ditu eta Inclusive bezalako irisgarritasun-tresnak ditu. Webgunearen diseinua, gainera, responsive da, eta beraz edozein gailutara egokitzen da.

<sup>3</sup> Horrek ez du eragozten informazioa gaika taldekatuta egotea (adibidez, aurrekontuei buruzko informazioa Ogasunaren atalean aurki daiteke) eta udalaren webgunetik edo kanpoko beste bilatzaile batzuetatik bertara iritsi ahal izatea.



Apirilaren 7ko **2/2016 Legeak**, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bestalde, toki erakundeen publizitate aktiboko betebeharrak **zorrotz** arautzen ditu, betebeharrak eremu materialen arabera banakatuz modu **zehatz eta xehatuan**. 50. artikuluko “printzipio orokorrak” atalean, lehendik aipatu diren irisgarritasun- eta berrerabilgarritasun-printzipioei Legeak gaineratzen die bermatuko dela toki-administrazioen “dokumentu eta euskarrietan ez dela hizkuntzaren erabilera sexistarik egiten”, eta gainera euskararen erabileraren normalizazioari buruzko legeria betetzea bermatuko dela, bereziki toki-erakundeen publizitate aktiboan euskararen erabilera sustatzean arreta jartzea.

19/2013 Legearekin alderatuta dagoen berritasunetako bat da euskal Legeak esaten duela **informazioak “egiazkoa, erraz eskuratzeko modukoa, bereizkeriarik egiten ez duena, argia, erraza zehatza** behar duela izan”, eta era berean aipatzen duela **batez ere bideoak, grafikoak, argazkiak, marrazkiak** eta ematen den informazioaren nondik norakoak hobeto ulertzen laguntzen duten beste edozein konposizio-bide erabiliko dela, orria edo dokumentu-euskarria osatzeko. Izan ere, aipatu 50. artikuluen 6. puntuak zehazten duenez, “publizitate aktiboaren **adierazpen grafikoak** erabiliko dira, **lehentasunez, publizitate aktiborako bitarteko gisa** konplexutasun handiko gai eta datuen kasuan” eta adierazpen grafiko horiek **“nahitaez erabili beharko dira” izaera ekonomiko-finantzariora duen edozein informazioaren kasuan**.

Txosten honetan, Udalak dituen publizitate aktiborako betebeharrak nola betetzen diren adierazten dugun heinean, printzipio orokor horiek zein puntutan betetzen diren ere adieraziko dugu.

## **ERAKUNDEARI, ANTOLAMENDUARI ETA PLANGINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA**

19/2013 Legearen 6. artikuluen eta 2/2016 Legearen 52. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa:

1. Toki-erakundearen organoak, beharrezkoak eta osagarriak, honako hauek adierazita: beraien titularrak (osaera), eta eginkizunak.
2. Aplikagarri zaizkion arauak.
3. Organo bakoitzaren gai-zerrendak eta hartzen dituzten erabakiak.
4. Erakundean eta haren gobernu-taldeetan ardura politiko gorena duten pertsonen buruzko informazioa, curriculumeko datuak barne.
5. Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
6. Antolamendu-egitura eguneratua: organo desberdinetako arduradunak biltzen dituen organigrama, berariaz aipatuz zuzendaritzako edo erantzukizuneko lanpostuak, lanpostu horiek betetzeko zer profil behar den eta lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten.
7. Toki-ordezkarien ondasun eta jardueren buruzko urteroko aitorpenak.
8. Behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
9. Gobernu-plana, agintaldiko plana edo jardura-plana. Aldian-aldean, horien betetze-maila.



10. Urteko eta urte anitzeko plan eta programak (xede zehatzak, eta horiek gauzatzeko aurreikusitako jarduerak, baliabideak eta epea). Xede horien gauzatzeko mailaren aldizkako ebaluazio eta argitalpena.
11. Udaleko alderdi politikoei buruzko informazioa.
12. Aholku-organoak eta gizarte-partaidetzakoak, haien jarduera eta erabakiak barne.
13. Edonolako erakunde instrumentalak, eta arduradun gorenak zein diren eta haien antolamendu-egitura zer-nolakoa den ere adierazi beharko da.
14. Toki-erakundeek argitara emango dituzte, beren web-orri instituzionaletan eta informazio orokorreko gainerako medio propioetan, beren posta-helbidea, beren helbide elektronikoa eta erakundeak herritarrentzat dituen irispide orokorreko telefono-zenbakiak, eta adieraziko dituzte beren hautetsi-karguen eta zuzendaritza-karguen interakzio-moduak.
15. Halaber, ezagutzera emango da zein kanaletatik eskaintzen diren herritarren arretarako zerbitzuak eta zein kanaletatik gauzatu daitekeen herritarren parte-hartzea.

Kapitulu honen betebeharrei erantzuteko, Gasteizko Udalaren Gardentasun Atariak atal espezifiko bat dauka ([Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa](#)), eta bertan informazio-item hauetarako estekak eskaintzen dira:

#### *Antolakuntza politikoa*

- [Udal antolakuntza politikoaren egitura osoa](#)
- [Udalbatza: zinegotziak](#)
- [Tokiko Gobernu Batzarra](#)
- [Udal gobernuaren Organoak](#)
- [Parte-Hartze Organoak: Elkarguneak, Auzoguneak eta Gizarte Kontseilua](#)
- [Udal talde politikoak](#)
- [Goi karguak eta politikariek izendatutako langileak](#)
- [Behin-behineko langileen, kargu hautetsien eta zuzendaritza-organoen ordainsariak](#)
- [Goi karguen Jarduera eta Ondasunen Erregistroa](#)
- [Osoko bilkuraren zuzeneko emanaldiak](#)
- [Udalari eragiten dioten ebazpen judizialak](#)

#### *Administrazio-antolakuntza*

- [Administrazio antolakuntzaren egitura osoa](#)
- [Organigrama orokorra](#) (Eguneratzea:2017ko otsailaren 8an)
- [Organigrama, sailez sail](#) (Eguneratzea:2017ko otsailaren 8an)
- [Udal bulegoen kokalekua](#)



- [Udal langileak](#)
- [Lanpostu zerrenda](#)
- [Udalaren lan eskaintza](#)
- [Lanpostuetako ordainsarien taulak](#)
- [Gobernu eta parte-hartze organoen akta eta gai-zerrenden kontsulta](#)
- [Udal araudiak](#)
- [Aholkularitza juridikoa emateko organoen eta kontuhartzailearen barne txostenak](#)

Loturetan egiazta daitekeen bezala, **Gardentasun Atariaren atal honetan** lehendik aipatutako 15 puntuetan **eskatutako informaziorako sarbidea ematen da** (artikulu horietan biltzen ez den itemen bat ere hartzen du barnean, adibidez ordainsariak, eta aurrerago aipatuko dugu) eta kasu guztietan informazioa azken legealdiari dagokionez (kargu politikoak, administrazio- eta politika-egitura eta abar) edota jardueraren azken uneari dagokionez (aktak eta gai-zerrendak, araudia eta organigramak, batzuk aipatzearen) eguneratuta eskaintzen da.

14. puntua (harremanetarako bitartekoak) erakunde-fitxa moduan agertzen da informazio instituzionalaren atalean, eta webgune osoan buruan eta oinean agertzen da gainera. Kargu hautetsiak komunikazio interaktiborako moduak (e-maila, sare sozialak) Osoko Bilkura osatzen duten pertsonetako bakoitzaren "fitxan" datoz. 15. puntuak gune espezifiko bat dauka webgune honetan: [www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea](http://www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea), eta gardentasun-ataritik lotuta dago.

Hainbat **salbuespen** aipatu behar dira, informazioari edota informazioaren izaera edo eguneratzeari dagokienez:

- Gobernu-organoetan nahiz parte-hartzeari lotutako organoetan hartzen diren **erabakien eta gai-zerrenden** gaia: akten gaineratzea, gai teknikoak eta/edo logistikoak direla medio,  **nolabaiteko atzerapenarekin** eskaini da ekitaldian zehar, baina 2016ko azken hilabeteetan eta 2017ko lehen hilabeteetan atzerapen hori zuzendu da, eta bi aste igaro aurretik bilkura bakoitzeko akta herritarren eskura dago kontsulta-aplikazioaren bitartez.
- **Arduraldi-araubidea** zehazten da **ordainsarien dokumentazioan**, eta bertan arduraldia ez duten kargu hautetsientzat ezarritako dieten zenbatekoa ere adierazten da.
- 6) puntuko informazioan, non "berariaz aipatuz zuzendaritzako **edo erantzukizuneko lanpostuak**" adierazten den, lanpostu horietan dauden pertsonen izen-abizenak adierazten diren, eta horiei lotu dakizkiekeen zereginen katalogoa argitaratzen den, **lanpostu horiek betetzeko eskatzen den profila** lanpostuen katalogoan ikus daiteke, baina itzultzeko zain dago gune horretan lotura gisa ezarri ahal izateko. Argitaratzeko geratzen den informazioa honako honi dago lotuta: "lanpostu horiek betetzen dituztenek zer ibilbide profesional daukaten".
- 9) eta 10) puntuak (gobernu-planak eta urteko eta urte anitzeko planak eta programak) ez daude bilduta Gardentasun Atariaren epigrafe honetan, baizik eta Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak epigrafean, non legealdi-plana lotzen den (eta legealdi-planetik planetara eta programetara sartzen da). Legealdi-plana, gainera, webguneko menu nagusiko "Tramiteak eta udal gobernu" eremutik espresuki lotutako atala da. **Informazioari gaineratzen ez zaiona da Plan horren gauzatze-maila, eta urteko eta**



**urte anitzeko planen eta programen kasuan**, ez dago “ereduzko fitxa” bat non horiei guztiei dagokienez helburu zehatzak, jarduerak, bitartekoak eta lortzeko denbora biltzen diren. Zati hori, gauzatze-mailaren ebaluazio eta aldizkako argitalpenarekin batera ez da homogenea, batzuei buruz informazio hori eskaintzen delako eta beste batzuei buruz ez. Gardentasun-plan operatiboaren bitartez lan egiten ari gara, helburu nagusia erakundearen gardentasunaren kultura gaineratzea izanik, kontu-arrazoiak emateko proiektu batean, gobernu-konpromisoak eta horien betetze-maila ezartzeko metodologia sailkatzeko eta argitaratzeko informazio-sistema bat garatu ahal izateko.

Atal honen hasieran aipatutako printzipio orokorrei dagokienez, informazioa elebitan eskaintzen da, soilik gaztelaniaz eskaintzen diren erantsitako artxibo jakin batzuk salbu (ondasun-aitorpenak, adibidez). Web-informazioa, esklusiboki html formatuan, elebitan dago eta genero-berdintasunaren esparrua errespetatzen du; eguneratuta dago, egiazkoa da eta ez oso zaila, eta irisgarritasun unibertsalaren estandarrak betetzen ditu.

## **GARRANTZI JURIDIKO-NORMATIBOKO INFORMAZIOA**

19/2013 Legearen 7. artikulua eta 2/2016 Legearen 53. artikulua arabera

Eskatutako informazioa:

1. Publikoak izango dira udal-organismoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
2. Toki-erakundearen ordenantza, erregelamendu eta aurrekontuen proiektuak, beranduenera ere, hasierako onarpena eman eta berehala argitaratuko dira. Irizpenak eskatzea nahitaezkoa denean, aholku-organismoari irizpenak eskatzen zaizkienean argitaratuko dira, eta horrek ez du eragingo, nahitaez, entzunaldi publikoa ematea.
3. Arau-testuak egiteko espedienteetako memoriak eta txostenak; bereziki uztailaren 3ko 1083/2009 Errege Dekretuak araututako arau-eraginaren analisiari buruzko txostena.
4. Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.
5. Publikoak izango dira, halaber, udal-organismoek onartutako erabakiak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.
6. Aholku-organismoaren txosten edo irizpenak ere publikoak izango dira.
7. Herritarren partaidetzako prozesuaren txostena eta ondorioak, halakorik baldin badago.
8. Hasita, martxan eta bukatuta dauden partaidetzako prozesuak. Eta bereziki, prozesu horiekin lotutako txostenak.

Bi artikulua horiek aipatzen dituzten informazio-itemak udalaren webguneko **hainbat gunetan agertzen dira** eta Gardentasun Atariko hainbat gunetatik lotzen dira. 2) eta 4) puntuak, adibidez, udal-araudiaren orrian (eta aurrekontuei dagokien zatia aurrekontuen orrian: [www.vitoria-gasteiz.org/aurrekontuak](http://www.vitoria-gasteiz.org/aurrekontuak)), baita 5) puntuaren definizioan sartzen diren erabakiak (dekretuak, erabakiak eta abar). 7) eta 8) puntuek espazio propioa dute herritarren partaidetzari buruzko webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea](http://www.vitoria-gasteiz.org/partehartzea)). Bi guneak Gardentasun Ataritik lotuta daude lehendik aipatutako ataletan (Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa eta Herritarrekiko eta Gizartearekiko harremanei buruzko informazioa) eta aurrekontuei dagokien



zatia Ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioa atalean. 6) puntuak, aholku-organoen txosten edo irizpenei buruzkoak, hainbat orri ditu lotuta Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa ataletik.

Goian argitaratutako zerrendaren salbuespenak honako hauetan aurki ditzakegu:

- 1. atala ez da agertzen webgunean, identifikatzea ahalbidetuko duten irizpideak ez daudelako ezarrita.
- 3. atala ez da espezifikoki garatu udalaren webgunean. Arau-testuak argitaratzen dira, Araudia atalean hasierako onespina ematen zaienean. Dokumentazio hori bildu eta argitaratzeko sistematika ezartzea aurreikusita dago.

Araudiak, parte-hartze prozesuei lotutako dokumentuak eta abar elebitan daude, baina dekretu eta txosten asko (Osoko Bilkurako idazkaritzarenak, Kontu-hartzailetza orokorrarenak eta abar) soilik gaztelaniaz argitaratzen dira.

## **EKONOMIARI, AURREKONTUARI ETA ESTADISTIKARI BURUZKO INFORMAZIOA**

19/2013 Legearen 8. artikulua eta 2/2016 Legearen 55. eta 57. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa:

1. Kontratu guztiak, honako hauek adierazita: xedea, iraupena, lizitazio- eta esleipen-zenbatekoa, zein prozeduraren bidez egin den, zein bitartekoren bidez iragarri den, prozeduran parte hartu duten lizitatzailen kopurua, esleipendunaren nortasuna, eta kontratuaren aldaketak eta luzapenak. Kontratuetan atzera egiteko eta kontratuari uko egiteko erabakiak ere argitaratu egin beharko dira.
2. Kontratu txikiak hiru hilabete behin argitaratuko dira, modu agregatuan, eta argitaratzen direnetik gutxienez 12 hilabetez emango da horien berri.
3. Era berean, argitaratuko dira datu estatistikoak sektore publikoko kontratuen legedian aurreikusitako prozeduretako bakoitzaren bidez esleitutako kontratuak aurrekontuaren gainean hartzen duten ehunekoari buruz.
4. Ezarritako zigorrak, hala badagokio, kontratisten ez-betetzeengatik.
5. Sinatutako hitzarmenen zerrenda, honako hauek adierazita: sinatzaileak, xedea, iraupena, aldaketak, prestazioak eta adostutako betebeharrak ekonomikoak –halakorik baldin badago–.
6. Sinatzen diren kudeaketa-gomendioak ere argitaratuko dira, honako datu hauek adierazita: xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta azpikontratazioak, berariaz aipatuz esleipendunak, esleipena egiteko jarraitutako prozedura eta esleipenaren zenbatekoa.
7. Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak: zenbatekoa, xedea edo helburua, eta onuradunak.
8. Aurrekontuak, aurrekontu-partida nagusiak deskribatuz eta exekuzio-egoerari buruzko informazio eguneratu eta ulergarria emanez. Argitara emango dira osorik eta eguneratuta, modu erraz, argi eta grafiko batean, partida nagusiak deskribatuz eta



informazio zehatza emanez beraien exekuzio-maila ezagutzeko eta ekitaldian zehar onetsitako aurrekontu-aldaketak jakiteko.

- 9.** Aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako helburuak betetzeari buruzko informazioa.
- 10.** Argitaratu beharreko urteko kontuak, eta kanpo-kontrolako organoek horiei buruz egiten dituzten kontu-auditorien eta fiskalizazioen txostenak.
- 11.** Honen aplikazio-eremuko entitateetako goi-kargu eta arduradun nagusiek jasotzen dituzten urteko ordainsariak. Halaber, kargua uztean jasotako kalte-ordainak ere argitaratuko dira, jaso badituzte.
- 12.** Bateragarritasuna baimentzeko edo aitortzeko ebazpenak, langile publikoei eragiten dietenak, eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguek edo autonomia-erkidegoko edo tokiko araudien arabera horien pareko direnek kargua utzitakoan jarduera pribatuan jarduteko baimentzen dituzten ebazpenak.
- 13.** Tokiko ordezkarien ondasun eta jardueren urteko aitortpenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean aurreikusitakoaren arabera.
- 14.** Beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera.
- 15.** Hornitzaileen ordaintzaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak.
- 16.** Ondareko ondasun higiezin zerrenda, hala bere jabetzakoak direnena nola haien gaineko eskubide errealeen bat dutenena, eta hala badagokio, zein erakunderi laga zaizkion.

Ekonomia- eta finantza-izaerako itemak ia berdinak dira erreferentzia gisa hartu ditugun bi arauetan, baina euskal Legea, sarreran adierazi den bezala, zorrotzagoa eta zehatzagoa da gutxienezko betekizunak definitzeko garaian.

Zerrendatzen diren 16 itemetatik gehienak Gardentasun Atariaren Ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioa atalean daude zerrendatuta (atal honetatik lotzen dira, hots: informazioa webgunean dago) baina kasu honetan ere hainbat elementu era berean formatu irekitan daude open datako atariaren barruan ([www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak](http://www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak)), eta horrek 2/2016 Legearen 50. eta 60. artikuluen betekizunei erantzuten die<sup>4</sup>. Beste item batzuk, adibidez

---

<sup>4</sup> 59. artikulua, datuen irekitasunari buruzkoak, adierazten du beharrezkoak diren ekintzak sustatu beharko direla datuen benetako irekitasunerako, eta berrerabili ahal izateko. 60. artikulua, informazioaren berrerabilpenari buruzkoak, bestalde, zera adierazten du: “toki-erakundeek informazio publikoa berrerabili dadin bultzatuko dute”. Bi artikuluek, 19/2013 Legearen 11. artikuluen arabera gardentasun-atariak izan beharko duen elkarreragingarritasunaren printzipioarekin batera, Administrazioek gobernu irekien ereduaren arabera egin behar duten datu irekien politika publikoaren oinarriak ezartzen dituzte. Gasteizko Udala 2016an hasi zen bere datuak formatu ireki eta berrerabilgarrietan argitaratzen (elkarreragingarriak indarrean dauden legezko eta arauzko xedapenen arabera), eta pixkanaka berrerabilzaileei eskaintako datuen katalogoa handitzen ari da. Datu irekiei buruzko udal politika gardentasun-proiektu propioaren zati da, eta datu-izaera duten publizitate



ondasun- eta bateragarritasun-aitorpenak (12. eta 13. itemak) edo goi-karguen ordainsariak (11. itema) Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa atalean daude lotuta.

Ekonomia- eta finantza-egoerari buruzko atala, era berean, hirutan dago zatituta: aurrekontuei buruzko informazioa, kontratazio eta ondasunari buruzko informazioa eta kontu-arrazoiak ematea, publizitate aktiboko betebeharrak betetzen dituzten hainbat lekutarako estekekin eta erreferentziak bi legeek markatzen dituzten gutxieneko datuei gaineratutako datuekin. Alkatearen agendarekin lotutako gastuen edota zuzendaritza-taldearen ordezkari-taldeen kasua da hori.

#### *Aurrekontuei buruzko informazioa*

- [Udal aurrekontuak: webgune nagusia](#)
- [Indarrean dauden aurrekontuak](#)
- [Adierazle ekonomikoak](#)
- [Aurrekontu egonkortasuna](#)
- [Indarrean dauden ordenantza fiskalak](#)
- [Tasa eta prezio publikoekin finantzatutako zerbitzuen benetako kostuak](#)
- [Zergak ordaintzeko egutegia](#)

#### *Kontratazio eta ondasunari buruzko informazioa*

- [Kontratazioa: motak eta prozedura](#)
- [Kontratatzailearen profila](#)
- [Kontratuen historikoaren kontsulta](#)
- [Kontratazio Mahaia: funtzionamendua, egutegia eta aktak](#)
- [Kontratu, hornitzaile, emakide eta hitzarmen estatistikak eta zerrendak](#)
- [Udalaren ondasunen inbentarioa](#)

#### *Kontu-arrazoiak ematea*

- [Vitoria-Gasteizko Udalari buruzko Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak](#)
- [Aparteko diru-kontaketa Korporazio aldaketa dela eta, 2015eko ekainaren 12ko datuz](#)
- [Alkatearen erakunde-agendarekin lotutako gastuak](#)
- [Alkatearen, gobernu-taldearen eta zuzendarien ordezkari-taldeen bidaiak](#)
- [Jasotako eta emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak](#)
- [Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea](#)

---

aktiboko ataletan eskatutako item guztiak [www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak](http://www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak) webgunean argitaratuko dira.



○ [Aurrekontu gauzatzearen egoera](#)

Datuak 2016ko aurrekontuaren itxiera-datan daude eguneratuta, salbuespen batzuekin, adibidez 2016ko diru-laguntzak, datuak itxiera-prozesuan baitaude, beste batzuk prozedura eta epeei lotutako alderdiak direla medio, adibidez inbentarioaren eguneratzea edota Kontu Orokorren onespenerekin egiten diren ekonomia- eta finantza-adierazleak, Osoko Bilkuraren Erregelamenduak ezartzen duenez aurkezpena maiatzaren 2an, Osoko Bilkurako Batzordearen Irizpena maiatzaren 15ean eta osoko bilkuraren onespenera uztailearen 31n egin behar baitira alde zuzen jendaurrean jarri ALHAOn, aurrekontua likidatuta, eta horren ondorioz oraindik ez daude argitaratuta 2016ko aurrekontu-adierazleak eta diru-laguntzak, edo ondoren adierazten diren beste batzuk.

- Kontratuak zerrenden bitartez edota [aldaketak kontsultatzeko garatutako aplikazio batean](#) sartuz eskaintzen dira (txikiak, 2. atalekoak), modu erantsian. Era berean, kontratuen estatistikari (3. itema), hitzarmenen zerrendei, aginduei eta diru-laguntzei buruzko dokumentazio eguneratua dago. Salbuespena da kontratuak ezesteko eta ukatzeko erabakiak ez direla argitaratzen (1. itema), ezta kontratisten ez-betetzeengatik zigorrak ere (4. itema), [prentsa-oharretan egindako aipamenak](#) salbu, adibidez 2016ko ekitaldian garbitasun-kontratari jarritako isunekin.
- 5) itemari (hitzarmenak) eta 6) itemari (kudeaketa-gomendioak) dagokien informazioak osatuagoa izan beharko luke, betebeharren enuntziatuak iradokitzen duen bezala, zerrenda laburrak direlako eta soilik gaztelaniaz daudelako.
- 14) itemari dagokionez, zeinak adierazten duen argitaratuko dela "beren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko estatistika-informazioa, administrazio eskudunak xedatutakoaren arabera", Kudeaketa Publiko Aurreratuko Ereduan oinarrituz eta lehendik aipatutako [Gardentasun Plan Operatiboaren](#) bitartez ari gara lanean zerbitzu-katalogoa definitzeko proiektu batean, informazio-sistema bat garatzea ahalbidetuko duena, beste zenbait alderdiren artean gaur egun eskusiboki Sailen txosten eta memorien bitartez aurkezten den informazioa bilduko duena.
- 15) itemean, hornitzaileen ordainketaren arloko berankortasunaren gaineko legeria betetzeko epeak argitaratzeari buruzkoan, epe horiek argitaratzen dira. Hobekuntza gisa, informazioa Ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioaren atal honetatik lotu beharko litzateke.
- Ondareari buruzko informazioa 2015/12/31n eguneratuta dago. Webgunean adierazten den moduan eguneratuko da, kontu orokorra 2017ko uztailean ixten denean.

Atal honen informazioan ez-betetze gehienak aurkitzen ditugu euskararen erabileraren arloan indarrean dauden xedapenei dagokienez, izan ere, udal-aurrekontua osatzen duten dokumentuak, kontratuen, ondarearen eta beste batzuen zerrendak soilik gaztelaniaz daudelako, duela gutxi arte soilik barne-kudeaketarako bakarrik erabiltzen zirelako. PDF formatuaren gehiegizko erabilerak, gainera, irisgarritasun unibertsalerako aginduaren ez-betetzeak ekar ditzake. Bestalde, aipatu dugun bezala, formatu irekiko (batez ere ODS eta XLS) dokumentu gehien dituen atala da, eta horrek irekiera eta gardentasun handiagoa dakar.

Aurrekontu-informazioak, bestalde, aipamen berezia behar du, hasieran (6. orrialdean) adierazitako printzipio orokorretako bat ez duelako betetzen, hain zuzen ere "ekonomi eta



finantza izaerako edozein informaziotan" irudikapen grafikoak erabiltzeko ezartzen duena (2/2016 Legearen 50. artikulua).

## LANGILEEI BURUZKO INFORMAZIOA

### 2/2016 Legearen 56. artikulua araber

Eskatutako informazioa:

1. Publiko egingo dira enplegu publikoaren eskaintzak, zenbateraino bete diren, eta funtzionario eta lan-kontratupeko langileentzako hautaketa-prozesuak –deialdiak, eta izendapenera arteko edo kontratua sinatu arteko egintza guzti-guztiak barne–.
2. Toki-administrazioek edo beste erakunde mota batzuek emandako ikastaro eta prestakuntza-programak.
3. Sindikatu-ordezkaritzako organoak osatzen dituzten kideak eta horretarako liberatuta dauden pertsonen kopurua, berariaz aipatu beharko delarik zer ordu-kreditu duten.
4. Lanpostuen zerrendek taula sinoptiko bat jaso beharko dute, non, kategoriaren arabera ordainsari indibidualizatua jartzeaz gainera, antolamendu-tresna horren elementu garrantzitsuenak laburtuko diren.

Publizitate aktiboko betebeharrak, langileei dagokienez, Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa ataleko loturekin betetzen dira, baita udalaren webguneko beste gune batzuekin ere (adibidez, [www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak](http://www.vitoria-gasteiz.org/hautatze-prozesuak), edo [Udalaren lan eskaintza](#) atala, Tramiteak eta udal gobernua atalean). Eskaintzak argitaratzen dira eta euren jarraipena egiten da (Herritarren postontziko [elkarriketa](#) espezifikoekin deialdi bakoitzeko, zalantzak argitzeko chat gisa funtzionatzen dutenak), [udal langileei](#) buruzko datuak ematen dira ([lanpostuen zerrenda eta ordainsarien taulak](#) barne), baita eskatutako puntu guztiak ere, udaleko langileen [ikastaro eta prestakuntza-programen](#) datuak formatu irekian, baita eskatutako puntu guztiak ere, honako salbuespen honekin:

- 3. puntuari buruz ematen den informazioan, [sindikatuaren ordezkaritza](#), sindikatuaren langile ordezkaritza eta liberatuen kopuruarekin eta orduen urteko kopuru eta kostuarekin batera, organo horietako kideen zerrenda gaineratu beharko litzateke.

## TOKIKO POLITIKA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU-ZORROAREN GAINKO INFORMAZIOA

### 2/2016 Legearen 54. artikulua araber

Eskatutako informazioa:

1. Toki-erakundeek modu argi, irisgarri, ulergarri eta errazean zabalduko dute zer sartzen den herritarrei eskaintzen dieten zerbitzu-zorroan, eta berariaz zehaztuko dute zer ondasun eta prestazio eskaintzen dituen toki-erakundeak eta horien kostua zenbatekoa den, bai osotara eta bai pertsona bakoitzeko.
2. Era berean, publiko egingo dituzte zerbitzu-kartak edo pareko dokumentuak, eta, halakorik badute, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko edo egiaztatuzko prozesuak.
3. Eskaintzen den zerbitzu bakoitzari buruzko ordutegia eta ordaindu beharreko prezio publikoak edo udal-tasak zehaztu beharko dira.



4. Gainera, informazio agregatua, laburra eta argia eskainiko da honako zerbitzu hauen gainean:
  1. Mantentze-lanak eta obrak
  2. Segurtasun publikoa eta babes zibila
  3. Hondakinen bilketa eta tratamendua
  4. Uraren kudeaketa
  5. Kale-garbiketa
  6. Ekonomia-jarduerak eta lizentziak
  7. Hirigintza eta ingurumena
  8. Kultura eta kirolak
  9. Gizarte-zerbitzuak
  10. Emakumeen eta gizonen berdintasuna

54. artikulutik ondorioztatzen diren publizitate aktiboko betebeharrak udalaren webguneko eduki desberdin eta mota askotakoekin betetzen dira, adibidez antzokien webgunean ([www.principalantzokia.org](http://www.principalantzokia.org)), udaltzaingoaren gunean ([www.vitoria-gasteiz.org/udaltzaingoa](http://www.vitoria-gasteiz.org/udaltzaingoa)) edo [ingurumena](#), batzuk aipatzearen. Gardentasun Atariak, bestalde, txosten honetan lehenik aipatu den atal bat dauka, [Herritar eta gizartearekiko harremanak](#) deitutakoa, eta bertan herritarren parte-hartze eta arreta, ingurumen-politika, hirigintza, obra publiko eta abarri buruzko informazioa eskaintzen da.

Azter dezagun elementu bakoitza:

- Zerbitzu-zorroari dagokionez [udal zerbitzu eta ekipamenduen katalogo](#) bat dago udal webgunean, eta kostuei buruzko informazioa ([kostuen azterketak](#), prezio publikoak ezartzeko balio dutenak); zerbitzuen kostua eta horiengatik ordaintzen den prezioa erraz eta argi erlazionatzea beharrezkoa izango litzateke.
- Udalean izandako [zerbitzu-gutunej](#) buruzko informazioa dago baina une honetan ez dago halakorik, Diru-bilketa Zerbitzuarena izan ezik<sup>5</sup>. Lehenik aipatutako Kudeaketa Publiko Aurreratuko Ereduaren eta [Gardentasun Plan Operatiboaren](#) bitartez egiten diren lanek udalaren eskumenerako zerbitzugintzan kalitate-adierazleetan sakontzea ahalbidetuko dute.

---

<sup>5</sup> Errealitatean, gertatzen dena da 2015ean San martineko eraikinera Sail asko lekualdatzearen ondorioz Udalean izandako berrantolaketa-prozesuaren ondorioz aldatetak egin zirela hainbat zerbitzutan (ASIAC desagertzea, adibidez), eta ordura arte zeuden zerbitzu-gutunetako batzuk testuinguruz kanpo geratu dira.



- Udalean ematen den zerbitzu bakoitzaren ordutegiei, tasei eta gainerakoei buruzko informazioa zerbitzu horren informazioan bertan dago bilduta. Adibidez, [Gizarte Etxeak](#) webgunean zentro horiei buruzko informazio guztia eskura daiteke, baina baita Principal Antzokiaren webgunean edota [adinekoentzako zentro soziokulturalak](#) webgunean, hiru adibide aipatzearren.
- 4. itemari erantzuteko, gai horiei buruzko hainbat webgune daude: [mantentze-lanak eta obrak](#); [segurtasun publikoa eta babes zibila](#); [hondakinen bilketa eta tratamendua](#); [uraren kudeaketa](#); [kale-garbiketa](#); [ekonomia-jarduerak eta lizentziak](#); [hirigintza](#) eta [ingurumena](#); [kultura](#) eta [kirolak](#); [gizarte-zerbitzuak](#) eta [emakumeen eta gizonen berdintasuna](#).

Kasu honetan, Legeak markatzen duen publizitate aktiboko betebeharreri erantzungo zien informazioa ez dago leku bakar batean bilduta espresuki, izan ere, udalaren webgune-ekosisteman sakabanatuta baitago. Aipatu 54. artikulua markatzen dituen betekizunak betetzen dira, baina 4. puntuko informazioa ez da eskaintzen modu bateratu, zehatz eta argian.

Kasu guztietan informazioa bi hizkuntza ofizialetan dago (kostuen azterketak eratzten dituzten artxibo erantsiak salbu), irisgarritasun-betekizunak betetzen dira eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko udal politika errespetatzen da.

## BESTE ALDERDI BATZUK

### 2/2016 Legearen 58. eta 61. artikuluen arabera

Eskatutako informazioa bi artikuluen horien arabera:

1. Herritarrentzako interesekoa den informazioa ere argitaratuko da, ahaztu gabe betiere dagokion arautegi espezifikoak ezarritako informazio-betebeharrak.
2. Ezagutzera emango dira herritarren arretarako eta partaidetzarako zerbitzuak eskaintzeko dauden kanalak.
3. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeek gardentasunaren atari bat sortu ahal izango dute beren egoitza elektronikoetan edo erakunde-webgunetan, herritarrek eta erakundeek titulu honetan ezarritako gardentasun-betebeharren ondorioz publikoa den informazio oro eta toki-erakundeak eman nahi duen informazio guztia eskuratzea errazteko. 20.000 biztanle baino gehiagoko toki-erakundeek derrigor izan beharko dute gardentasun-atari bat.
4. Espazio bat prestatu beharko da herritarrek proposamenak eta iradokizunak egin ditzaten, bai eskatutako informazioari buruz, bai beren eskuera jarritako informazioari eta erabilitako formatu, programa edo lengoia informatikoei buruz. Espazio horrek, era berean, aukera eman ahal izango du datuen irekitasunari eta berrerabilerari buruzko aplikazio informatikoen garapenean parte hartzeko.
5. Toki-erakundearen beraren erregelamendu bidez, gainera, informazioa herritarren artean zabaltzea eta herritarren partaidetza bultzatuko duten kanal anitzeko sistemak ezarri ahal izango dira.

Kasu honetan, Gasteizko Udalak gardentasun-atari bat dauka eta herritarrentzako interes orokorrekoak diren beste informazio batzuk argitaratzen ditu, ataritik edota webgune orokorretik



eskura daitezkeenak. [Arretarako](#) eta [herritarren parte-hartzerako kanalei](#) buruzko informazioa eskaintzen da eta herritarrek eskaintzen den informazioari dagokionez Udalarekin elkarreragiteko hainbat gune daude: [herritarren postontzia](#) bera edo atal espezifiko bat [open data atarian](#) (“datuen irekiera eta berrerabilerari buruzko informatika-aplikazioen garapenean parte-hartzea gaitzea”).

## ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA UDAL ENPRESAK

Udalaren erakunde autonomoek (Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Luis Aranburu Musika Eskola eta Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioa) atal propioa dute Gardentasun Atarian; atal hori, era berean, udalaren webguneko guneei lotuta dago. Gardentasun-atl honetan ematen den informazioak webgune orokorreko eskema berari jarraitzen dio, baina hainbat informazio-item orokorrean daude sartuta (adibidez aurrekontu-informazioa edo goi-karguen ordainsariei buruzkoa).

### Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI)

#### Erakundeari buruzko informazioa

- [Oinarrizko datuak: eginbeharrak, zuzendaritza-organoak](#)
- [Ekipamendu eta zerbitzuak](#)
- [Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Estatutuak](#)
- [Zuzendaritza kontseiluaren bilerak: deialdiak eta gai zerrendak](#)
- [Lanpostuen zerrenda](#)
- [Langileen ordainsariak](#)
- [Goi-karguen ordainsariak](#)

#### Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa

- [Aurrekontua: sarrerak eta gastuak](#)
- [Jasotako diru-laguntza guztiak](#)
- [CEAren hornitzaileen zerrenda 2014](#) | [CEAren hornitzaileen zerrenda 2013](#)

#### Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak

- [2015eko Jarduera-memoria](#) | [Aurreko jarduera-memoriak](#)
- [CEAk antolatutako jarduerak](#)

### Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioa

#### Erakundeari buruzko informazioa

- [Oinarrizko datuak: eginbeharrak, zuzendaritza-organoak](#)
- [Kontserbatorioaren kokapena: helbidea eta harremanetan jartzeko](#)
- [Langileei buruzko informazioa](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

- [Zuzendaritza Kontseiluaren bilerak: deialdiak eta gai-zerrendak](#)
- [Lanpostuen Zerrenda](#)
- [Irakasleen eta lan-kontratupeko langileen ordainsariak 2016](#) (pdf)
- [Irakasleen eta lan-kontratupeko langileen ordainsariak 2014](#) (pdf)
- [Goi-karguen ordainsariak](#)
- *[Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa](#)*
- [Aurrekontua: sarrerak eta gastuak](#)
- [Dantza Kontserbatorioaren kontratuak](#)
- [Transferentziak eta jasotako diru-laguntzak](#)
- [Kontserbatorioaren hornitzaileen zerrenda](#)
- *[Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak](#)*
- [Jarduera-memoriak](#)
- [Zentroko hezkuntza proiektua](#)
- [Erreferentziazko araudiak eta arauak](#)
- [Kontserbatorioak antolatutako jarduerak](#)
- [Gurasoen elkarteak](#)
- [Kontserbatorioari buruzko ohiko galderak](#)

### **Luis Aranburu Udal Musika Eskola**

#### *[Erakundeari buruzko informazioa](#)*

- [Oinarrizko datuak: eginbeharrak, zuzendaritza-organoak](#)
- [Musika Eskolaren kokapena: helbidea eta harremanetan jartzeko](#)
- [Langileei buruzko informazioa](#)
- [Zuzendaritza Kontseiluaren bilerak: deialdiak eta gai-zerrendak](#)
- [Lan kontratudun langileen enpresarentzako Hitzarmen Kolektiboa](#)
- [Lanpostuen Zerrenda](#) | [Aldaketa ALHAO 75. zk, 2016/07/04koa](#)
- [Zuzendaritza orokorraren izendatzea \(ALHAO 134. zk, 2016/11/30ekoa\).](#)
- Irakasleen eta lan-kontratupeko langileen ordainsariak: [2014 urtea](#) | [2015 urtea](#) | [2016 urtea](#)
- [Goi-karguen ordainsariak](#)
- Berriazko osagarri gehigarria, zuzendaritza karguarengatik eta betekizunengatik: [2014 urtea](#) | [2015 urtea](#) | [2016 urtea](#)
- *[Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa](#)*
- [Aurrekontua: sarrerak eta gastuak](#)



- [Jasotako diru-laguntza guztiak](#)
- [Musika Eskolako Inbentarioa 2016](#)
- [Eskolako hornitzaileen zerrenda 2016 | Eskolako hornitzaileen zerrenda 2015](#)  
*Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak*
- [Jarduera-memoriak](#)
- [Erreferentziazko araudiak eta arauak](#)
- [Eskolak antolatutako jarduerak](#)
- [Ikasgelak erabiltzeko araudia \(ikasle izan edo ez\)](#)
- [Musika Eskolari buruzko ohiko galderak](#)

Erakunde autonomoen kasuan informazioa eguneratuta dago (2016ko estatistika eta zerrendekin, adibidez hornitzaileen edo ordainsarien kasuan) eta elebitan edo euskarazko bertsioan. Gune honi egin diezaiokegun salbuespena da informazioaren egitura berrikusi behar dela, Udalaren Gardentasun Atariaren antzeko epigrafeen barruan hainbat datu eta informazio aurkezten direlako eta horiek atalen batean publizitate aktiboko betebeharrak modu zehatzagoan egokitu beharko direlako.

Udal enpresen (TUVISA, AMVISA, eta 21 Zabalgunea) egoera desberdina da. Bi lehenengoen aipatu dugun gardentasun-atala badute, baina hirugarrenak ez, eta hari buruzko datuak udal atariko aurrekontu globaletan bakarrik daude. Aholkularitza eskaini zaio ildo horretan, Udalak partaidetutako GILSA enpresarekin egin den bezala.

## TUVISA

### Erakundeari buruzko informazioa

- [Oinarrizko datuak: harremanetarako, jarduera eremua, zuzendaritza-organoak.](#)
- [Ekipamenduak eta langileak \(datu estatistikoak, ordezkaritza sindikala, kontratazio zerrendak...\)](#)
- [Sozietatearen estatutuak](#)
- [Enpresako hitzarmen kolektiboa](#)
- [Langileen ordainsariak \(aurrekontuen eranskina\)](#)  
*Aurrekontuei eta ekonomia eta finantzei buruzko informazioa*
- [Diru-sarrerak eta gastuak 2016](#)
- [Irabazi-galeren kontua 2016](#)
- [Hornitzaileak: batz besteko prezioa eta gasolioaren esleipenak - 2015](#)
- [Lehiaketak eta kontratuak](#)
- [Kontratazio jarraibidea](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

#### Harremanak herritarrekin

- [TUVISAk emandako zerbitzuei buruzko informazioa: lineak, ordutegiak...](#)
- [Urteko kontuak eta kudeaketa-txostena - 2014](#)
- [2014ko kontuen auditoria](#)

#### Kudeaketaren datuak:

- [2015ean garraio publikoa erabili zuten pertsonak](#)
- [Enpresak kudeatutako aparkalekuak zenbat betetzen diren\)](#)
- [Autobusei buruzko informazioa \(zenbat denbora duten eta zenbat toki eskaintzen duten...\)](#)
- [Prensa aretoa](#)
- [TUVISArri buruzko kontsultak Herritarren postontzian](#)

#### Berrerabil daitezkeen datuak

- [lineei buruzko informazioa](#)
- [informazioa denbora errealean.](#)

### **AMVISA**

#### **Enpresari buruzko informazioa**

- [Enpresaren deskribapen orokorra](#)
- [Harremanetarako datuak](#)
- [Antolamenduaren egitura](#)
- [Amvisa Merkataritza Sozietatearen Estatutuak](#)
- [Administrazio Kontseiluaren bileren aktak](#)
- [Araudia](#)
- [Langileak eta lan harremanak](#)
- [Urteko Txostena](#)
- [Urteko eta urte askoko Ekintza Planak](#)

#### **Aurrekontuen informazioa eta ekonomiko-finantzarioa**

- [Urteko Aurrekontua](#)
- [Aurrekontuaren likidazioa](#)
- [Auditutako urteko kontuak](#)
- [Jasotako eta emandako subentzioak eta diru-laguntzak](#)
- [Esleipenak](#)
- [Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea](#)



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

### **Bezeroekiko eta gizartearekiko harremanak**

- [Datu adierazgarriak](#)
- [Edateko uraren kalitatea](#)
- [Kontratatzaiilearen profila](#)
- [Enplegu eskaintzak](#)
- [Izapideak](#)
- [Tarifak](#)
- [Zure faktura interpretatzen ikasi](#)
- [Komunikazioa](#)
- [Txostenak / Uraren kudeaketari buruzko ikerketak](#)
- [Hitzarmenak](#)
- [Lan-sareetako parte-hartzea](#)
- [Gizarte-erantzukizuna](#)

Bi enpresa horien izaera dela medio euren jarduerari buruz ematen duten informazioa desberdina da, baina Gardentasun Atari orokorrean adierazten diren antolaketa/erakunde eta aurrekontu/finantza izaerako datuak biltzen dira.



## Informazio publikoa eskuratzea

### 3.1 Lege-esparrua eta prozedura

19/2013 Legearen III. Kapitulua informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen du, hots, gardentasunaren beste dimentsioa, “gardentasun pasiboa” deitu ohi zaiona, “gardentasun aktiboari” kontrajarriz, zeina txosten honetan aipatutako publizitate aktiboko betebeharren arabera arautzen den. Legearen 12. eta 13. artikuluek honako hau diote:

*12. artikulua. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.*

*Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan.*

*Halaber, autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da, betiere bakoitzaren eskumenen barruan.*

*13. artikulua. Informazio publikoa.*

*Informazio publiko dira titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.*

19/2013 Legean eskubide hori baliatzeari buruz ezarritako erregulazioak, 2/2016 Legearen informazio publikoa eskuratzeari buruzko printzipioei eta erreklamazio-organoari buruzko III. Kapituluan ezarritakoarekin sendotuta, Gasteizko Udalaren barruan hori gauzatzeko administrazio-prozedura bat abian jartzea ekarri du.

Ildo horretan, Gardentasun Atarian (eskuragarri dagoena [udalaren egoitza elektronikotik](#), herritarren parte-hartzerako tramiteen atalean eta udalaren webguneko “Tramiteak eta udal gobernu” zabalgarrian) [Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea](#) deitutako gune bat gaitu zen, bertan zehaztuz prozeduraren lege-esparrua, eskaerak bideratzeaz arduratuko den unitatea, jarraitu beharreko prozedura, ukatuz gero nola erreklamatu behar den eta abar. Udalak [tramitea martxan jarri zuen](#), aurrez aurre edo telematikoki (erregistro elektronikoa erabiliz) egin daitekeena, eta jasotako eskaeren estatistikak argitaratzen hasi da.

19/2013 Legeak, 17. artikuluan, adierazten du eskubidea, arrazoitu beharko ez dena, “honako hauek egiaztatze aukera ematen duen bitartekoren baten bidez aurkeztuko dela: eskatzailearen nortasuna, eskatzen den informazioa, harremanetarako helbidea (ahal bada elektronikoa) jakinarazpenak egiteko, eta eskatutako informazioa zein modalitatetan jaso nahi



den”. 2/2016 Legeak, publizitate aktiboko xedapenetan egiten duen bezala, are gehiago zehazten du eta 62. artikuluan adierazten du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea “antiformalismoan eta garapen-samurtasunean oinarritutako prozeduren bidez baliatuko dela”. Udalaren kasuan, prozeduren gaiak 2016an bilakaera bat izan zuen. Hasieran, sartzeko eskaera-prozeduran udalean sarrera telematikoko modu edo puntu gisa erregistro elektronikoa ezarri zen (gaur egun eskura dauden sinadura digitaleko bitartekoen bidez sinatzeko eskatzen duena). Ekitaldia amaitzean, ordea, eta NAN-e, ziurtagiriak, gakoak eta abar eduki beharrak eskubidea baliatzeko oztopo izan zedin saihesteko, eskaerei posta-helbide batean ([informacion@vitoria-gasteiz.org](mailto:informacion@vitoria-gasteiz.org)) arreta eskaintzeko aukera gaineratu zen; betiere helbide horretara behar bezala betetako inprimaki bat bidaltzen bazen, 39/2015 Legean ezarritako eskakizunetan oinarrituz.

### 3.2 Estatistikak

Gardentasun-atariak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruz egiten diren [estatistikak](#) biltzen ditu. 2/2016 Legeak ezartzen du honako hauei buruzko informazioa eman beharko dela: zenbat eskaera aurkeztu diren; zenbat eskaera ebatzi diren; batez beste zein epetan ebatzi diren; zenbat eskaera onetsi diren oso-osorik, zenbat zati batean, eta zenbat beste pertsona bat aurka egonda; zenbat eskaera ezetsi diren, eta zenbat ez diren onartu; zati batean edo beste pertsona bat aurka egonda onesteko arrazoiak, ezestekoak, eta ez onartzekoak; maizen eskatutako informazioa; eta eskatzailearen profila (adin-tartea, sexua, eta eskaeran erabilitako hizkuntza).

Udalak 2016. urteari buruz eskaintzen duen estatistikak (2017tik aurrera bi hilean behineko maiztasunarekin gaineratzen du) 2/2016 legeak ezarritako baldintzak betetzen ditu, eskatzaileen profilari buruzko informazioa salbu, ez baitira adin-profilari buruzko datuak biltzen. Datu hori, eskatzailearen sexuari buruzko datuarekin batera, duela gutxi erantsi dira eskaera-inprimakian, estatistika-ondorio hauetarako.

#### 2016. urtea

- Jasotako eskaerak: 30
- Eskaerak sarrera-kanalaren arabera: aurrez aurrekoa (30)
- Eskatzaileen sexua: emakumeak 6 (% 23) / gizonak 20 (% 77)
- Eskaeren hizkuntza: Gaztelania (30)

Eskaerekiko erantzun-maila	
<b>Jaulkitako erantzunak</b>	<b>20 (% 66,6)</b>
<b>Erantzunak epearen barruan</b>	9 (% 30)
<b>Zein kanalen bidez erantzun diren</b>	Posta: 12
	Posta elektronikoa: 3
	Udalaren Webgunea: 1



Eskaerekiko erantzun-maila	
	Ez dago jasota: 4
<b>Onetsitako eskaerak</b>	17 (% 56,6)
<b>Zati batean onetsitako eskaerak</b>	0
<b>Ezetsitako eskaerak eta arrazoia</b>	3 Arrazoia: Abusuzko informazioa
<b>Ebazteke</b>	10 (jarraipena egiten) (*)
<b>Gaien laburpena</b>	Hirigintza, Ogasuna, Ingurumena eta jasangarritasuna, Herritarren parte-hartzea, Osasun publikoa, Bide publikoa, Kirolak, Herritarren segurtasuna, Sustapen ekonomikoa, Gizarte-zerbitzuak.

Ebazteke dauden eskaerak jarraipen-egoeran daude, eskatzen den informazioa lortzea zaila da datuak zaharrak direlako edota oso bolumen handia dutelako.

2016ko amaieraz geroztik, Udalaren esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko eskaerak kudeatzeaz arduratzen den [Herritarrentzako Arreta eta Gardentasunari buruzko zerbitzuak](#) hainbat bitarteko erantsi ditu administrazio-prozeduran, horrelako eskaerak garaiz eta modu egokian ebazteko. 2017an jasotako eskaera guztiak, txosten hau idatzi den unean, erantzunda daude.



## Gardentasun-atarira egindako bisitak

Txosten honetan dagoeneko adierazi dugu udalaren webgunearen ezaugarri nagusietako bat zein den. Gasteizko Udalak webgune bakarra dauka<sup>6</sup>, domeinu bakarrarekin ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) elkarren artean gai-arlotan edo gaitan taldekatutako milaka web-orriekin, gai horien arabera hainbat "atari" edo sarrera espezifikoekin, url helbide laburtuen inguruan konfiguratzeko direnak ([www.vitoria-gasteiz.org/kultura](http://www.vitoria-gasteiz.org/kultura) edo [www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak](http://www.vitoria-gasteiz.org/datuirekiak), adibidez).

Domeinu bakarreko, helbide nagusi bakarreko filosofia horrek, herritarrentzat positiboa denak udal webgune osoak "gardentasuna" dakarrela uste baitugu, webguneko edukietarako sarreraren azterketa baldintzatzen du, Gardentasun Atariaren "zati" gisa biltzen diren orriak, berez, webgunearen zati direlako. Konparazio bat eginez, bi ate dituen armairu baten aurrean egongo ginatke, ate bat alde bakoitzean egonik, baina joka bera hartzeko aukera emanez. Erraz jakin dezakegu joka noiz hartu den, armairutik desagertzen delako, baina zailagoa da joka hartzeko zein ate ireki dugun jakitea, ate bakoitza noiz irekitzen den adierazten duen sistemaren erabiltzen dugunean salbu (dena dela, lehendabizi egiaztatu beharko litzateke joka barnean dagoen ala ez, edota, ate ireki ondoren joka benetan hartu ote den).

Gardentasun Ataritik lotzen diren udaleko webguneko edukien kasuan, aldi jakin batean zenbat sarrera edo bisita izan dituzten jakin dezakegu, baina ezin dugu sarrera horien trazabilitatea ziurtatu, bisita batzuk Atariko loturetatik iritsiko direlako, beste batzuk webguneko beste gune batzuetatik eta beste batzuk kanpoko bilatzaile edo web-orrietatik<sup>7</sup>. Hala ere, ondoren Atariko

---

<sup>6</sup> Berez bi dira, zeren <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>, zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa buruzko 11/2007 Legean ezarritakoaren arabera ingurune seguru gisa eratu, [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) gunearekiko webgune independentea baita. Hala ere, bi plataformen arteko elkarrengarritasun mailarik handiena lortu nahi izateak bi domeinuen elkarrekin partekatzen dituzten html edukiak (orriak) sortzea dakar, CMS (content management system) tresna beraren bitartez kudeatzen direlako, eta beraz eduki baterako sarrera webgune orokorraren barnean edota egoitza elektronikoa egin ahal izan da.

<sup>7</sup> Bisiten jatorria zehaztu daiteke (izan ere, askotan egiten da) baina gardentasun-webgunearen konfigurazioak, gainera 2016ko ekitaldian aldatu egin denak, ez du zeregin hori errazten. Konpondu beharreko gaia da, eta aztertzen ari gara, Gardentasun Ataritik edukietara egindako bisitak islatzea ahalbidetzen duten bitartekoak alde aurretik ezartzea. Aurreikusita dago 2017an gobernu irekiarekin zerkusia duten eduki guztiak (gardentasuna, parte-hartzea eta open data) berrikustea, webgunearen



web-orri nagusietara (orri nagusia, gaien araberako hiru orriak) egindako bisiten datuak eskaintzen dira eta Ataria martxan jartzearekin batera ad-hoc sortu zirenak zerrendatzen dira, webguneko beste atal batzuetatik elkarlotuta dauden arren uste baitugu bertatik lehentasunez kontsultatzen direla (udal langileak, goi-karguen ordainsariak, ondasunen aitorpenak, kontratuen estatistikak, eta abar). Beste orri batzuk daude, adibidez Udalaren lan eskaintzarena edo Aurrekontuena, Gardentasun Ataritik lotuta agertzen direnak eta bisita-datu benetan handiak dituztenak (lehen kasuan, 66.000 sarrera inguru; bigarren kasuan, 7.000 baino gehiago) baina esanguratsuak ez direnak gardentasunaren kontzeptuaz haraindiko garrantzia eta presentzia duten edukiak direlako, sarrera propioekin eta gune askotatik loturak izanik.

Orri nagusiak	Bisita kop.	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitako ehunekoa
Gardentasun Ataria (hasiera-orria)	11.225	8.138	% 27,84
Udal webgunea	11.260.169	7.830.682	% 50,48
<i>Elkarren arteko lotura</i>	<i>guztizkoaren % 0,10</i>	<i>guztizkoaren % 0,10</i>	<i>% 44,84 gutxiago</i>

Estatistika honek adierazten du Gardentasun Atariaren orri nagusiak 2016ko ekitaldian webgunean egindako sarrera guztien % 0,1 izan dituela (Gizarte Etxeen orri nagusiak, adibidez, urte horretan guztizko sarreraren % 1,8 izan zituen). Ehunekoa, webgunearen guztizkoarekin alderatuta, antzekoa da orria gutxienez ere behin ikusi den saio kopurua aipatzen duen "ikusitako orri bakarren" kasuan. Bisita kopuruaren eta ikusitako orri bakarren arteko erlazioa, hala ere, desberdina da Gardentasun Atarian eta webgunean: bisita bakarrak Gardentasun Atarian bisiten guztizkoaren % 72 dira, eta udalaren webgunean % 69ra jaisten da. Datu hori azpimarragarria da, eduki horretarako sarrera espezifikoak adierazten baititu. Gauza bera gertatzen da zeharka ikusitako ehunekoarekin (askoz txikiagoa Gardentasun Atariaren kasuan), eta horren ondorioz pentsa dezakegu eduki horretara iristen diren pertsonak une batez geratzen direla, edukia irakurtzen dutela eta beste orri batzuetan sartzen direla.

Gaikako orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitako ehunekoa
Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa	5.981	3.466	% 43,57

menu nagusiko zabalgarrietan presentzia handiagoa emateko, eta horrela zuzeneko sarrera gehiago egongo dira.



Gaikako orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoehunekoa
Ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioa	3.468	2.154	% 16,18
Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak	1.470	980	% 50,00
<i>Udal webgunea</i>	<i>11.260.169</i>	<i>7.830.682</i>	<i>% 50,48</i>

Hiru orri nagusiak aztertuz, Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioarena da bisita gehien dituen, eta ondoren Ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioarena. Hori kongruentea da, gune horiek biltzen baitute, alde batetik, informazio mediatiko eta "berritzaileena" (ondasunen aitortpenak, goi-karguen ordainsariak, langileei buruzko informazioa eta abar), eta bestetik, garrantzitsuena kontuak arazoitzeko garaian (aurrekontuak, kontratuak, kostuak, diru-laguntzak eta abar). Deigarria da ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioaren orri "nagusian" zeharka ikusitakoehunekoa txikia, eta horrek esan nahi du eduki horretan sartzen diren pertsonak gauza jakin baten bila sartzen direla eta orriari begiratzen dutela (udal webgunearen batez bestekoari dagokionez webgune horretako egonaldia minutu bat eta hogeita hamar segundo da batez beste, eta beste biak batez bestekoaren azpitik daude).

Eduki-orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitakoehunekoa
Goi-karguen ordainsariak	2.042	1.683	% 69,33
Udal langileak	4.113	2.767	% 49,48
Jardueren eta ondasunen erregistroa	677	439	% 57,33
Gai-zerrenda eta akten kontsultak (organo espezifiko bakoitza kontsultatzeko sarrera ematen duen orria)	1.323	634	% 22,37
Osoko bilkuraren zuzeneko emanaldiak streamingen <sup>8</sup>	2.064	1.314	% 57,43
Zerbitzuen kostuen azterketak	1.023	452	% 51,68

<sup>8</sup> Eduki hori ez zen indarrean egon 2016. urte osoan: uztailen aktibatu zen. Ordura arte telebista-kanala erreferentzia zuen eta kanpo-webgune batean zegoen kanpo-zerbitzu bat erabiltzen zen.



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Eduki-orriak	Bisita kopurua	Ikusitako orri bakarrak	Zeharka ikusitako ehunekoa
Kontratuen, diru-laguntzen eta abarren estatistikak eta zerrendak*	16	7	% 100
Alkatearen erakunde-jardueratik eratorritako gastuak	1.299	537	% 53,91
Legealdiko plan estrategikoa	1.335	825	% 36,61

*\*Eduki hau 2016ko ekainean sortu zen, html bakar batean aipatu zerrenda eta estatistiketako datuak bilduz; datu horietako batzuk open datako atarian liberatu dira. Beste gune batzuetarako sarrera-orri izaera argi geratzen da zeharka ikusitako ehunekoa ikusterakoan (hots, interesatuak orrian sartzen dira eta, berehala, loturaren batean klik egiten dute).*



## Ondorioak

Txosten honetan bildutako informaziotik atera daitekeen ondorio nagusia da **Gasteizko Udalak, funtsean**, indarrean dagoen lege-esparruak ezartzen dizkion **publizitate aktiboko betebeharrak betetzen dituela**. Zifrak adieraziz, esan dezakegu betebehar horien % 92,3 betetzen ditugula, hau da, adierazitako 52 betebeharretatik 48. Item horietako hainbatek (9) **hobetzeko marjina** dutela egia bada ere, batez ere **informazioaren argitasun eta erraztasunari** edo aurrekontu-informazioan **elementu grafiko eta bisualak lehentasunez erabiltzeari** dagokienez, udalaren webguneak oro har, eta Gardentasun Atariak bereziki, legeetan bildutako **itemetako 48ri buruzko datuak eta informazioak eskaintzen dituzte**, eta gainera aldizkako eguneratzeen bitartez.

2016ko udan **datu irekiei buruzko udal ataria martxan jarri izana**, horri ehun datu-multzo baino gehiago eta datu horiei buruzko erreferentzia egiten duten bostehun artxibo inguru gaineratuz, era berean **kontuan izan beharreko elementua da Gasteizko Udalak** bere eguneroko zereginean **gardenagoa izateko egindako apustua azaltzeko**, gardentasuna nabarmen handitzen baita herritarren zerbitzurako eguneroko zereginean erabiltzen diren datu guztiak formatu ireki eta berrerabilgarritan eskaintzen direlako.

Udalaren **web-ingurunearen konfigurazioak**, domeinu nagusi bakarrarekin ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) eta bertan hainbat azpi-domeinu bilduz, adibidez gardentasunarena ([www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna](http://www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna)), **hala eta guztiz ere, informazioaren arkitektura-lan handiagoa eskatuko luke**, 19/2013 Legean eta 2/2016 Legean eskatzen den informaziorako **sarrera zuzenagoak, argiagoak eta egituratuagoak ahalbidetzeko**. Gaur egun, bi noranzkotan ari gara lanean: alde batetik, [Gardentasunaren Plan Operatibo](#) bat martxan jartzea, zeina, **gobernu irekiaren kontzeptu-esparruan**, erakundean **gardentasunaren benetako kultura ezartzer**a bideratutako hainbat **proiektu** lantzen ari den, publikitate aktiboa hobetzeko eta gardentasun pasiboa errazteko; eta bestetik, **webguneko nabigazio-egitura birdiseinatze**ko **proiektu bat**, Gardentasun Atariaren **birdefinizioa** eta kontzeptu-esparru horrekin **bat datozen beste eduki batzuekiko lotura handiagoa** ekarriko duena (parte-hartzea, open data), denok bilduko dituen **gobernu irekiko zabalgarri espezifiko** bat gaituz.

Udalaren sailak, erakunde autonomoak eta enpresak lan garrantzitsua egiten ari dira lege-eskakizunei erantzuteko argitaratu behar dena identifikatzeko xedez, baina beharrezkoa da hainbat **prozedura eta prozesu** garatzea herritarrentzat interesgarriak diren datuen eta informazioaren lorpena barneratzeko eta automatizatze



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

Azaldu diren zeregin horiei, publizitate aktiboko eta informazio publikoa eskuratzeko betebeharren betetze-mailari buruzko txosten honi buruz **Udalaren Gardentasunaren Kontseiluak** ematen duen irizpenetik sortzen diren ekintza-ildoak gaineratu beharko zaizkie.

**Gardentasuna** ez de helburu bat berez, **etengabeko berrikuspena**, ebaluazioa eta hobekuntza egitera behartzen duen **prozesu errepikakor eta gorakorra** baizik. **Prozesu horrek Erakunde osoa hartzen du bere baitan, eta atzerakorik ez duen bidea da.**

Horri buruzko informazioa eman da, Gasteizen, 2017ko apirilaren 21ean.

Gardentasunaren eta Edukien Atala  
Herritarren Arreta eta Gardentasunaren Zerbitzua



## ERANSKINA: Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren Bulegoaren gardentasuna

XV. mendera arte iristen diren aurrekari historikoak dituen Sindiko Nagusiaren irudia beti izan da Gasteizko hiriaren parte bizia eta historian zehar bitartekari lana egin izan du agintearen eta herritarren artean; hain zuzen horrek ekarri zuen Prokuradore Sindiko Nagusiarena Udalean gehien balioesten den ofizioa izatea.

Gaur egun, eta 2002an sortu zenetik hona, **Herritarren Defendatzailearen edo Sindikoaren bulegoak ugaltu egin ditu Vitoria-Gasteizko Udalak herritarren parte-hartzerako dituen baliabideak**, eta, **herritarren eta pertsona-kolektiboen eskubideak eta interesak defendatzea** eta agintekeria eta botere-gehiegikerietatik eta Udal Administrazioaren arduragabekerietaik babestea helburu duen organoa gauzatzen da. Udalaren eta herritarren arteko bermea eta lankidetzak eskaintzen dituen pertsona bakarreko organo honen egitura Udalbatzaren goi-mailako komisarioarena da eta publizitate aktiboaren betebeharren menpe dago. Obligazio horien betebeharra jasota geratzen da eranskin honetan, Herritarren Defendatzailearen Bulegoak berak hala eskatuta.

Herritarren Defendatzaile edo Sindikoaren Bulegoaren web guneak ([www.vitoria-gasteiz.org/sindico](http://www.vitoria-gasteiz.org/sindico)) **2017tik hona gardentasun bereziko** gunea dauka, gobernu irekiaren hastapenekin konpromisu garbia duela ikustarazteko asmoarekin; hala ere, azpimarra daiteke **Sindikoaren web gune osoa, berez, dela gardena**.

Beraz, txosten honetan zehar erabilitako antzeko metodologia erabiltzeagatik, azpimarratuko dugu haren web gunean ikus daitekeen obligazioen betetze-maila (gardentasunaren aipaturako atalean baino gehiago, ez baita honen besteko nabarmena), informazio-motak sailkatzeko sistema oinarri hartuta.

## ERAKUNDEARI, ANTOLAMENDUARI ETA ZUZENBIDE-ARAUEN BURUZKO INFORMAZIOA

**Informazio osoa**, Sindikoa zer den, kargua betetzen duen pertsona zein den, harremanetan jartzeko erak, laneko planak, etab.... web guneko **epigrafeetan sartuta dago**.

- **Zer da Sindikoa?**: eskuin aldeko menuaren "Erakundea" izeneko epigrafeak hainbat atal ditu zer den informazioa azaltzeko, **Nork betetzen du kargua?** (curriculumeko datuekin batera, eta kargua aurretik bete izan dutenen informazio eta guztiz), **eskumenak**... Badago atal bat **prentsa oharra**, eta bertan jasotzen da sindikoaren jarduerak komunikabideetan izan duen eragina, **zenbait ohiko galdera** zalantza ohikoenak argitzeko...
- Menu berean dago web gune baterako sarbide zuzena **jardueraren oroit-idazkiak**, (2002tik 2015era arte) eta beste zenbaitetara ere, **aholkuen zerrendarekin**, **txostenekin**, **ebazpenekin**, etab... guztiak Sindikoak emanak.

Bulegoari buruzko **oinarrizko informazioa ondo jasota dago, erraz aurkitu eta ulertzeko moduan**, eta hizkera ulergarrian ematen da, nahikoa nabarmenduta. **Arau-esparrua** bistarago jartzea faltako litzateke, ohiko galderetatik estekatuta ageri baita, eta 'Zer da Sindikoa?' ataletik, baina berriki jarri den gardentasunari buruzko espazioan ere ageri beharko bailuke.

Antolakuntza edo jardueren informazioari dagokionez, **zerrendak erabilgaitzak dira** (esteka askoko web guneak, kargatzeko zailak, gaikako sailkapenik gabe, ezta barne-bilaketa egiteko aukerarik ere). Bulegoak egindako jardueri buruzko informazioaren maila benetan oso ugaria



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

da (280 gomendio -233 hala eskatuta eta 47 ofiziokoak-, 34 aparteko txosten; ezetsi diren 139 eskabide; 16 artxibo "beste dokumentu batzuk" izeneko atalean...) Horrenbesteko informazio ugaria izanda, barne-egiturarik eta/edo horretarako bilaketa-tresnarik gabe, nahi ez den eragina, guztiz kontrakoa izatea, lortzen da. Katalogazioa lagungarria izango litzateke informatzeko orduan.

## INFORMAZIO EKONOMIKOA, ETA LANGILEEI BURUZKOA

**Aurrekontu-informazioa ez da zehazki sartzen**, Bulegora esleitutako aurrekontua Udalaren aurrekontuetan sartuta dagoelako. Hala ere, Gardentasunaren atalean, **2013-2016 aldiari dagozkion Bulegoko gastu zehatzak jasotzen duen dokumentua sartu da** (2. eta 6. kapituluak), baita goi karguen ordainsarien atalerako (2016an eguneratuta) esteka bat ere, kasu honetan Sindikoaren beraren irudiari eta haren konfiantzazko langileei erreferentzia egiten baitiete.



Gastuen dokumentuari dagokionez, gardentasun handiagoaren mesedetan, lagungarri izango litzateke ekitaldietan banatzea eta berriz ere erabiltzeko formatuan eskaintzea (excel edo csv, pdf euskarrian izan beharrean), Udalaren beste antzeko artxiboetan egiten den bezalaxe. Haren alde esan beharra dago artxiboa elebiduna dela eta guztiz irisgarria pdf izan arren.

Oro har, **aipatutako gardentasunaren atalak ez du argitasun handiagorik ekartzen**, Sindikoaren web-guneak berak berez daukanak baino. Hala ere, **haren izaera asmo-adierazpen eta** Udalak berak erabiltzen duen **terminologiari lotzeko bilaketa gisa ulertu beharra dago**. Erakundeari buruz eta haren jardura eta gastuei buruzko dokumentazioa nahikoa da eta legezko betekizunak betetzen ditu. Hala ere, Sindikoak bere hamabost urteko historian sortu dituen (eta sortzen dituen) agiriak oso ugariak dira eta horien antolakuntza hobe daiteke.



ERANSKIN GRAFIKOA: IDENTIFIKATUTAKO LEGE-BETEBEHARREN BETETZE-MAILA

	Guztira	Bai		Ez
			Egiteko dauden hobekuntzak	
Erakunde eta antolakuntzari buruzko informazioa	15	15	3	0
Garrantzi juridikoa duen informazioa	8	6	0	2
Ekonomi eta finantza egoerari buruzko informazioa	16	14	4	2
Politika publikoei buruzko informazioa	4	4	1	0
Langileei buruzko informazioa	4	4	1	0
Beste alderdi batzuk	5	5	0	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>52</b>	<b>48</b>	<b>9</b>	<b>4</b>



■ Betetzen dira ■ Ez dira betetzen